


A**Bat-bateko elkarrizketa**


Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

C1 maila**Gaia: Ikasleen gurasoen whatsapp-taldeak lagungarriak dira****Elkarrizketa bideratzeko:**

- Talde hauek seme-alaben heziketan elkarlana sustatzeko modu bat ere badira.
- Informazioa elkarri trukatzuz gaztetxoek harreman-arazoa garaiz antzeman daiteke, jazarpenak saihestuz.
- Arazoen aurrean gurasoen iritziak adostu edo bateratzeko balio dute.
- Ikasle-taldea bildu eta sendotzeko aukera eskaintzen dute, inor kanpoan utzi gabe.
- Gurasoen arteko harremanak aberasten dituzte, bai maila pertsonalean (planak egiteko, adibidez), bai talde-mailan (eskolako erabakiak, gertaerak jarraitzeko... eta abar).
- Gaztetxoek arteko gorabeheren inguruan, irakaslea eta eskola lehenbailehen jakinaren gainean jartzea errazten du, hauei behar bezala eskuhartzeko aukera eskainiz.

B**Bat-bateko elkarrizketa**

Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

C1 maila**Gaia: Ikasleen gurasoen whatsapp-taldeak kaltegarriak dira****Elkarrizketa bideratzeko:**

- Talde hauen bidez, gurasoek seme-alaben kontuetan gehiegi sartzen dute muturra. Ikasleek beren arazoei aurre egiten ikasi behar dute.
- Guraso batzuek beren burua bertan egotera behartuta ikusten dute.
- Askotan zurrumurruak oso azkar zabaltzen laguntzen dute horrelako taldeek, alferrikako minak edo gaizki ulertuak sortuz.
- Eraikitzaileak ez diren kritikak zabaltzeko arriskua dago (eskolari buruz, irakasle jakinei buruz...).
- Banakako arazo pertsonalak arazo kolektibo bihurtzen dira zenbaitetan, egoera deseroso eta desegokiak sortuz.
- Norbere pribatutasunaren mugak gainditzen dira askotan: gehienetan talde hauen helburua zein den ahaztu egiten da eta zabaldu behar ez diren kontuak aire ratzen dira, neurria galduz.

HIZTEGI LAGUNGARRIA:

- Arazoei AURRE EGIN
- Norbaiten, zerbaiten MESEDERAKO IZAN
- Elkarlana SUSTATU
- Pribatutasunaren MUGAK GAINDITU
- Zerbaiten NEURRIA GALDU
- Egoera larriak SAIHESTU

LAGUNTZEKO ZENBAIT GALDERA:

- Gaztetxoei ardurak hartzen uzten al diete benetan gaur egungo gurasoek, ala gehiegi babesten dituzte?
- Etengabeko kontrola ez al da areagotzen ari gurasoen arten teknologien bidez?
- Teknologia berriak mesedetarako izan badaitezke ere, zergatik pentsatzen da beti horien erabilera okerra egingo dela?
- Oso muturrekoak diren jazarpen-kasu batzuk antzemateko ezinbestekoa da sare sozialak kontrolatzea?
- Sare sozialek errazten al dute hezkuntza-komunitatearen kohesioa?